



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gai monografikoa

Pello Esnal

TESTU-ARKITEKTURA ETA GRAMATIKA, EKINTZA KOMUNIKATIBOAREN BAITAN

Atarikoak	3
Testu-arkitektura	9
Sarrera	9
1. Plan orokorra	11
2. Sekuentziak	24
3. Interaktibotasuna	40
4. Konexioa	48
5. Izen-kohesioa	63
6. Aditz-kohesioa	67
7. Ahots enuntziatzaileak	81
8. Modalizazioa	91

Gramatika	101
Sarrera	101
9. Gramatika berrirantz	102
10. Puntuazioa lantzen	107
11. Hitz-ordena lantzen	128
12. Lexikoa lantzen	144
Bibliografia	155

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2009an hiru ale:
13,80 €. Honela ordainduko dut:**

N.A.N.:

Kontu korronte bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txkekez



**Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Askok bagenekien –sinesten genuen– lan benetan garrantzizkoa plazaratu zuela HABEk 1999ko udazkenean, orain hamar urte: *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua*. Ibilbide luze baten emaitza zen. Metodologiara ez ezik, kurrikuluaren lau osagai nagusietara zekartzan –helburu, eduki, metodologia eta ebaluaziora– planteamendu komunikatiboaren oinarriak eta ondorioak. Hilabete batzuk geroago jarri zuen indarrean Kultura sailburuaren aginduak.

Zailena egina zegoen. Okerrena falta zen: dokumentuak zioena garatu eta eguneroko jardun didaktikoan hezurmamtzea. Eskerrak ez ginen hutsetik abiatzen eta baliagarri gertatuko zitzaizkigun urte luzetan landutako sena eta geureganatutako prestakuntza.

Askok sumatzen genuen lan handia eskatuko zigula planteamendua garatzeak. Besteak beste, hizkuntza bera –euskaraz gauzatutako ekintza komunikatiboak– aztertu beharko genuelako ikuspegi komunikatibotik. Baina hor ere ez ginen hutsetik abiatuko. Eta, azken batean, kontua ez zen hizkuntzalaritza egitea, ezta hizkuntzalaritza aplikatua ere, didaktika egitea baizik.

Hain zuzen, didaktika egin ondoren –hiru urtean hamazazpi euskaltegi-tako kurrikulu-proiektuak elikatuta–, eskaini ziguten Lourdes Elosegik eta Pello Esnalek, HIZPIDE 57an, urte haietako lanaren emaitza: *Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat*. Haren ildotik eta hura garatuz eta osatuz dator Pello Esnalen oraingo ale monografikoa, hau ere elkarlan estu eta zabal baten ondorio eta uzta, euskalduntzearen laugarren maila bideratzen ondua baina maila guztietarako balio lezakeena.

Izenburuak dioenez, testu-arkitektura eta gramatika ditu ale honek langai, beti ere euskararen didaktika abiaburu eta helburu –ekintza komunikatiboaren baitan–. Ekarpen eta berrikuntza agerikoak dakartza, eta ondoren jakingarriak igartzen eta iradokitzen ditu, irakaskuntzaren testuingurutik kanpo ere onuragarriak izan daitezkeenak.

Askok badakigu –sinesten dugu– lan erabakigarria plazaratu zuela HABEk 1999ko udazkenean, orain hamar urte. Eta badakigu –sinesten dugu– haren harian datorren monografiko honek eta ildo beretik egindako beste lan batzuek ere benetan lagun diezaguketela *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua* garatzen eta eguneroko didaktikan hezurmamtzen. Horixe dugu xede, euskararen eta euskal gizartearen mesedetan.

